



**LEGAZPIKO  
UDALA**

**OBRA KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKIA BIDEZ**

**AGIRRETXEBERRI JAUREGIA ERABERRITZEA KULTUR IRAKASKUNTZA ERAIKIN  
BIHURTZEKO**

**BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA**

**EZAUGARRIEN TAULA**

**KONTRATUAREN XEDEA**

Legazpiko Agirretxeberri jauregia eraberritzea kultur irakaskuntza eraikin bihurtzea.

**AURREKONTUA**

Zifratan	
<b>LIZITAZIOAREN AURREKONTUA:</b> 859.994,07€(BEZ barne )	<b>OINARRIZKO</b> *710.738,90 € (BEZik gabe) *149.255,17 € BEZari dagokiona

**URTEKOAK**

Ekitaldia
2016

**GAUZATZEKO EPEA**

**BERANDUTZA ZIGORRAK**

Hamabi (12) hilabete	Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateratuak 212.4 artikuluan aurreikusitakoak: atzeratutako egun natural bakoitzean, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko zigorra.
----------------------	--

**PREZIOEN BERRIKUSPEN FORMULA**

Ez dagokio prezio berrikuspenik
---------------------------------

**BERMEAK**

Behin-behinekoa	Behin betikoa
Ez da beharrezkoa	Esleipen zenbatekoaren % 5 (BEZik gabe)

**KLASIFIKAZIOA**

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA
K	7	4



**LEGAZPIKO  
UDALA**

#### **ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO DIRENAK:**

\* **Prezioa. 50 puntura arte.** Prezioaren puntuazioa honela kalkulatuko da:

Puntuazio gorenena eskaintza hoberenari emango zaio eta gainerako eskaintzei emango zaien puntuazioa honela aterako da: puntuazio hoberenari prezio-jaitsieraren portzentajearen eta eskaintza merkeenaren artean dagoen aldeak emango dituen puntuak kenduko zaizkio.

\* **Bermearen zenbatekoa handitzea. 3 puntura arte.** Puntuak ondoko formula erabiliz banatuko dira:

Zenbateko totala gehien handitzen duen eskaintzari 3 puntu emango zaizkio eta handitzen ez duenari 0 puntu. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira.

\* **Berme-epea luzatzea. 2 puntura arte.** Puntuak ondoko formula erabiliz banatuko dira:

2 puntu emango zaizkio 3 urteko berme totala eskaintzen duenari.

Puntu 1 emango zaio 2 urteko berme totala eskaintzen duenari.

\* **Ziurtagiriak eta planak izatea. 3 puntura arte.** Puntuak ondoren zehaztuko den moduan banakatuko dira:

- Kalitate-ziurtagiria (ISO 9.000 edo antzekoa,...): Puntu 1.
- Ingurumen-ziurtagiria (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan,...): Puntu 1.
- Laneko osasun eta segurtasun ziurtagiria (OHMAS, ....): Puntu 1.

#### **ESLEIPEN IRIZPIDEAK, FORMULA ARITMETIKOAK APLIKATUTA BALORATUKO EZ DIRENAK:**

\* **MEMORIA TEKNIKOA 42 puntura arte.**

Lehiatzaileek Memoria Tekniko bat aurkeztu beharko dute, orrialdeak behar bezala zenbatuta eta bere aurkibidearekin. Bertan, baloratuko diren puntuak bilduko dira, zenbatuta, eta memoria horren edukia nahikoa izango da egin beharreko obren norainokoa eta edukia kalibratzeko.

Memoria teknikoa paperean eta CDan aurkeztuko da. CDko fitxategiak "pdf" formatuan eta formatu originaletan (bc3, dwg, doc, etab.) egongo dira.

Memorian jasotako honako alderdiak baloratuko dira esleipenean:

a) Obraren zailtasun handienak antzematea (2 orri gehienez, DIN A4an edo DIN A3an (planoak), bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 12; letra mota: arial). **3 puntura arte.**

b) **Eraikuntza-prozesuaren definizioa eta lanen planifikazio orokorra.**

Eraikuntza prozesu orokorra ondo definituko da eta obra behar bezala eta aurreikusitako epeetan burutuko dela bermatuko duten baliabide egokiekin. Bereziki, eraikinean dauden babestutako elementuak birgaitzeko prozesuak zehaztuko dira, hala nola, arotz-lanak, gapirioak,... baita eraikuntza prozesuak ere, proiektuaren baldintza akustikoak bermatzeko (10 orri gehienez, DIN A4an edo DIN A3an (planoak) bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 12; letra mota: arial). **25 puntura arte.**

c) Obrak zirkulazioan, oinezkoengan eta ingurunean izango duen eragina murrizteko azterketa (5 orri gehienez, DIN A4an edo DIN A3an (planoak), bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 12; letra mota: arial). **12 puntura arte.**

Puntuak ondoren zehaztuko den moduan banakatuko dira:

- Inguruko lorategia babesteko azterketa honakoak barne hartuz: zuhaitziak, bideak,...: 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da obra instalazioen, materiala pilatzeko guneen eta obra burutzearekin zuzenean zerikusia ez duten beste espazioen kokapenari buruz egingo duen proposamena.
- Obra instalazioen azterketa, zamalanetarako maniobrak, materiala pilatzeko gunek: 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da obra instalazioen, materiala pilatzeko guneen eta obra burutzearekin zuzenean zerikusia ez dute beste espazioen kokapenari buruz egingo duen proposamena, partzelan materialen zamalanetarako maniobrak barne,...



**LEGAZPIKO  
UDALA**

- Zirkulazioan obrak izango duen eraginaren azterketa: Gehienez, puntu batera arte baloratuko da. Legazpiko hirigunean burutu beharreko obra dela aintzat hartuta, 0 eta puntu 1 bitartean baloratuko da obrak ibilgailuen zirkulazioan izango duen eraginari buruz lehiatzaileak egingo duen azterketa eta eragozpen horiek murrizteko proposatuko dituen neurriak.

- Oinezkoengan eragina murrizteko azterketa: Gehienez, puntu batera arte baloratuko da. Legazpiko hirigunean burutu beharreko obra dela aintzat hartuta, 0 eta puntu 1 bitartean baloratuko da obrak oinezkoen joan-etorrietan izango duen eraginari buruz lehiatzaileak egingo duen azterketa eta eragozpen horiek murrizteko proposatuko dituen neurriak.

**d) Hirigintzako, eraikuntzako eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko eta iraunarazteko Legazpiko Udal Ordenantzaren** barruan Ingurumena, paisaia eta natura babesteko ordenantzak izeneko Laugarren tituluan, neurri babesleak eta prebentziozkoak izenburuko 53. artikuluan zehazten diren eta obra honi eragiten dizkioten neurriak betetzearen gaineko azterketa (2 orri gehienez, DIN A4an edo DIN A3an (planoak), bi aldeetatik; letra tamaina gutxienez: 12; letra mota: arial). **2 puntura arte.**

Baloratuko ez diren arren memorian jaso behar diren hainbat alderdi:

a) Obra burutzeko epea. Alde batetik obra egiteko epe totala eta, bestetik, fase bakoitzaren epeak.

b) Obra egiteko izendatu diren langileak eta laguntza teknikoa: Atal horretan honakoak sartuko dira:

- Izen-abizenez aipatu behar dira obretan lan egingo duten teknikariak; gainera, haien kualifikazio eta esperientzia profesionala egiaztatzen duten agiriak erantsi behar dira, eta lan hauei emango dieten dedikazioa – osoa, partziala edo aholkularitzakoa- adierazi behar da. Obrako buruaz gain, honakoek osatuko dute lantalde teknikoa: obra arduradunak, arotz-ebanista taldeak eta ingurumen teknikariak.

- Espeipendunaren izenean jarduteko kontratistaren ordezkari nor izendatu den azaldu beharko da. Eginkizun horretarako nahitaez baldintza administratiboetako 20. artikuluan azaldutako titulaziodun teknikari bat izendatu behar da, eta baldintza hauek bete behar ditu: esperientzia izan beharko du tamaina honetako obretan eta obra buru izango da.

Atzerriko enpresen kasuan, aipatu den titulazioaren baliokidea eskatuko zaie.

c) Ustez azpikontratatu diren obren edo lanen zerrenda.

**ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA**

seirehun mila euro (600.000)

**BERME ALDIA**

URTEBETE (1), lanen harrera egiten den egunetik aurrera

**AZPIKONTRATA DAITEKEEN GEHIENENKO PORTZENTAJEA**

% 70

**IZAERA SOZIALEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Enpresa esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, arauzko eta ohiko xedapenak bete behar ditu. Bereziki, Gipuzkoako Eraikuntza eta Lan Publikoen lan-hitzarmenean edo bertan ezarritakoa berrikusi duten ondorengo lan-hitzarmenetan jasotako lan-baldintzak beteko ditu. Edozelan ere, esleipendunaren erantzukizuna izango da lan-istripuei dagokien oro.

**ALDAKETAK**

Hurrengo kapituluek ondorengo aldaketak jasan dezaketela jotzen da (horiek guztiak BEZa barne):

- Aurretiko lanak: 5.000 €.
- Egituraren berritzea: 4.000 €.
- Kanpoko eta barruko arotz-lanak berrekuratzea: 10.000 €.
- Behe-tentsioko instalazioak, berogailua eta aireztapena, instalazio mekanikoak, komunikaziokoak eta segurtasunekoak: 25.000 €
- Urbanizazioa: 4.500 €

**KONTRATAZIO MAHAIA**

Lehendakaria: Eric Galvez (EAJ)  
Mahaiko idazkaria: Ainhoa Urruela (AOT)  
Batzordekideak:  
Iñaki Gastañares (Udal idazkaria)  
Fernando Arakama (Udal kontuhartzailea)  
Ane Mendinueta (Udal arkitektoa)  
Jone Azpeitia (Hirigintza eta Nekazaritzako Teknikaria)  
Fernando Agirre (Udaltzainburua)  
Javier Iraeta (EAJ)  
Kepa Urzelai (Bildu)  
Oscar Valbuena (PSE-EE)  
Alberto Bezunartea (Irabazi)